Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko martxoaren 30a, astelehena — 59 — Lunes, a 30 de marzo de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko otsailaren 24ean, honakoa erabaki du:

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 70. artikuluak xedatzen duenez, langile berriak sartuz bete behar diren giza baliabideen beharrizanak, aurrekontu-esleipenarekin, enplegu publikoaren eskaintzaren xede izango dira. Gauza bera dio Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 52. artikuluan.

Plantillan izandako aldaketak ikusita eta langile-beharrak aztertu ondoren, 2026ko Lan Eskaintza Publikoaren 1. fasea onartzea proposatzen da. Lan eskaintza horrek 42 plaza izango ditu, eta horietatik:

— 39 txanda irekian izango dira, eta, beraz, langile berriak sartuz betetzeko gordeko dira eta

— 3 barne-sustapenean, langileen karrera profesionala ahalbidetzeko.

Lan Eskaintza Publikoaren urteko muga birjarpen-tasaren bidez arautzen da Estatuko Aurrekontuen Legean. Lege hori gaur egun onartu ez denez, aplikatzekoa den araudia Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legea da (20. artikulua), eta hirugarren aldiz luzatu da 2026rako. Beraz, plazen kalkulua arau-esparru horren barruan egin da, hargatik eragotzi gabe Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritzak Lan Eskaintza Publikoaren bigarren faseari ekitea, bertan plaza gehigarriak sartuz.

2026ko Lan Eskaintza Publikoak (1. fasea) 2022ko Lan Eskaintza Publikoan sartuta zeuden 22 plaza hartzen ditu barne, txanda irekiaren bidez betetzeko. Gaur egun ez dira deitu, eta horrek ez du inolako aldaketarik eragingo txandei eta modalitateei dagokienez. Plazak honako hauek dira:

— Eskola-eraikineko arduraduna: 5 plaza.

— Zaintzaile (Abegi-Etxea): 2 plaza.

— Eskolako atezaina: 3 plaza.

— Komunikazioetako operadorea: plaza 1.

— Herri-lanetako ingeniari teknikoa: 2 plaza.

— Industria-ingeniari teknikoa: 2 plaza.

— Parke eta Lorategietako teknikaria: plaza 1.

— Erdi-mailako teknikaria: 6 plaza (2 gizarte-hezitzaile + erdi-mailako teknikari 1 (gizarte-sustapena eta hezkuntza) + erdi-mailako teknikari 1 (mugikortasuna) + erdi-mailako teknikari 1 (osasuna eta ingurumena) + erdi-mailako teknikari 1 (hiri-mantentze eta -zerbitzuak).

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local con fecha 24 de febrero de 2026 ha acordado lo siguiente:

El Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, en su artículo 70 dispone que las necesidades de recursos humanos, con asignación presupuestaria, que deba proveerse mediante la incorporación de personal de nuevo ingreso serán objeto de la oferta de empleo público. En los mismos términos se pronuncia la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco en su artículo 52.

A la vista de las variaciones producidas en la plantilla y estudiadas las necesidades de personal, se propone la aprobación de la Oferta de Empleo Público para el año 2026 (1.ª fase), que se concreta en 42 plazas de las que:

— 39 serán en turno libre, y por tanto, reservadas para su cobertura mediante la incorporación de personal de nuevo ingreso y

— 3 en promoción interna, para posibilitar la carrera profesional de los/as empleados/as.

La limitación anual de la Oferta de Empleo Público, se regula mediante la tasa de reposición en la Ley de Presupuestos del Estado. No habiéndose aprobado a día de hoy dicha Ley, se entiende que la normativa de aplicación es la Ley 31/2022 de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023 (articulo 20), prorrogada por tercera vez para el año 2026. El cálculo de las plazas, por tanto, se ha realizado dentro de este marco normativo, sin perjuicio de que la Dirección de Gestión de Personas aborde una segunda fase de Oferta de Empleo Público en la que se incluyan plazas adicionales.

La Oferta de Empleo Público para el año 2026 (1.ª fase) subsume 22 plazas que estaban incluidas en la Oferta de Empleo Público 2022 para ser cubiertas por el turno libre y que a día de hoy no han sido convocadas; sin que ello suponga modificación alguna en cuanto a turnos y modalidades. Las plazas son las siguientes:

— 5 plazas de encargado/a de edificio escolar.

— 2 plazas de guarda (centro de acogida).

— 3 plazas de portero/a de escuela.

— 1 plaza de operador/a de comunicaciones.

— 2 plazas de ingeniero/a técnico/a de obras públicas.

— 2 plazas de ingeniero/a técnico/a industrial.

— 1 plaza de técnico/a de parques y jardines.

— 6 plazas de técnico/a medio/a (2 educador social + 1 técnico/a medio/a (promoción social y educación) + 1 técnico/a medio/a (movilidad) + 1 técnico/a medio/a (salud y medio ambiente) + 1 técnico/a medio/a (mantenimiento y servicios urbanos).

EK\CV GAO-I-2026-01552

Desgaitasuna duten pertsonentzako plazak gordetzeari dagokionez, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 74.1 artikuluak ezartzen duenez, euskal enplegu publikoaren eskaintzetan kupo bat gordeko da, gutxienez deitutako lanpostu hutsen % 7 desgaitasuna duten pertsonek betetzeko, administrazio bakoitzeko langile guztien % 2ra pixkanaka irits dadin. Gaur egun, desgaitasuna duten pertsonen ehuneko horretara iristen da Udala (32 pertsona), baina Lan Eskaintza Publiko honetan, 42 plazatik 4 gordetzen dira desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupo-modalitatean betetzeko, hau da, deitutako plaza-kopuruaren % 9.

Eskainitako plaza guztiek aurrekontua dutela jakinarazten da.

Azkenik, proposamena langileen ordezkariekin negoziatu da, Enplegatu Publikoaren Estatutuaren Legearen 37.1.l artikuluarekin bat etorriz, eta espedientean jasota geratu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikuluko h) apartatuaren edukiaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, bai eta deialdiak eta Hautaketarako Oinarriak ere.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hauek hartzea proposatzen zaio:

ERABAKIAK

1. 2026ko Lan Eskaintza Publikoa (1. fasea) onartzea, 1. eranskinean jasotzen diren funtzionarioen plantillako plaza hutsak barne hartzen dituena.

2. 2026ko Lan Eskaintza Publikoa (1. fasea) onartzeko erabakia (1. eranskina) Estatuko Administrazio Orokorrari bidaltzea.

3. 2026ko Lan Eskaintza Publikoa (1. fasea) onartzeko erabakia legez ezarritako aldizkari ofizialetan argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da, eta buru eman dio administrazioko bideari. Beraz, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete joan baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu Donostiako Gobernu Batzarrari; edo, bestela, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, eta han jarri errekurtsoa bi hilabete baino lehen. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko martxoaren 3a.—Alfonso Jimenez Grandes, Pertsonen Kudeaketako zuzendaria. (1552)

En relación a la reserva de plazas para personas con discapacidad, el art. 74.1 de la Ley 11/2022, de Empleo Público Vasco establece que en las ofertas de empleo público vasco se reservará un cupo no inferior al 7 % de las vacantes convocadas para ser cubiertas por personas con discapacidad, de modo que se alcance progresivamente el 2 % de los efectivos totales de cada administración. A día de hoy, el Ayuntamiento alcanza el referido porcentaje de personas con discapacidad (32 personas), si bien en la presente Oferta de Empleo Público, de un total de 42 plazas se reservan 4 para ser cubiertas en la modalidad de cupo de reserva para personas con discapacidad, lo que supone un 9 % del número de plazas convocadas.

Se hace constar que todas las plazas ofertadas cuentan con disponibilidad presupuestaria.

Por último, la propuesta ha sido negociada con la representación de personal, de conformidad con el artículo 37.1.l de la Ley del Estatuto del Empleado Público, de lo que queda constancia en el expediente.

De conformidad con el contenido del artículo 127, apartado h) de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, es competencia de la Junta de Gobierno Local la aprobación de la Oferta de Empleo Público, así como las convocatorias y Bases de Selección.

Por cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local, la adopción de los siguientes

ACUERDOS

1. Aprobar la Oferta de Empleo Público del año 2026 (1.ª fase), que incluye las plazas vacantes de la plantilla del personal funcionario que se recogen en el documento anexo 1.

2. Remitir el acuerdo aprobatorio de la Oferta de Empleo Público del año 2026 (1.ª fase) (anexo 1) a la Administración General del Estado.

3. Publicar el acuerdo aprobatorio de la Oferta de Empleo Público del año 2026 (1.ª fase) en los Boletines Oficiales legalmente establecidos.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa pudiendo, a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, interponerse contra el mismo recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local en el plazo de un mes, o impugnarse directamente, en el plazo de 2 meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime conveniente.

San Sebastián, a 3 de marzo de 2026.—El director de Gestión de Personas, Alfonso Jimenez Grandes. (1552)

2026KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA (1. FASEA)

| Azpitaldea | Plazaren izena | Txanda askea | | | | Barne sustapena | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Sarrera orokorra | Ezgaitas. | HE | Derrigort. data | Sarrera orokorra | Ezgaitas. | HE* | Derrigort. data |
| ESKALA: Administrazio berezia - AZPIESKALA: Teknikoa - KLASEA: Erdi mailako teknikariak | | | | | | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (BERDINTASUNA) | 1 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (GIZARTE HEZITZAILEA) | 2 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (OSASUNA ETA INGURUMENA) | 1 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (GIZARTE SUSTAPENA ETA HEZKUNTZA) | 2 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (MUGIKORTASUNA) | 1 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK) | | 1 | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | HERRILANETAKO INGENIARI TEKNIKOA | 2 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | INDUSTRIA INGENIARI TEKNIKOA | 2 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| A2 | PARKE ETA LORATEGIETAKO TEKNIKARIA | 1 | | C1C1 | Iraungita | | | | |
| ESKALA: Administrazio berezia - AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak - KLASEA: Eginkizun bereziak | | | | | | | | | |
| C2 | MUGIKORTASUN AGENTEA | 8 | | B2B2 | Iraungita | | | | |
| C2 | ZAINTZAILEA (ABEGI ETXEA) | 2 | | B2B2 | Iraungita | | | | |
| C2 | ESKOLA ERAIKINAREN ARDURADUNA | 3 | 2 | B2B2 | Iraungita | | | | |
| E | ESKOLAKO ATEZAINA | 2 | 1 | B2B2 | Iraungita | | | | |
| ESKALA: Administrazio berezia - AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak - KLASEA: Udaltzaingoa | | | | | | | | | |
| C1 | UDALTZAIN OFIZIALA | | | | | 2 | | C1C1 | Iraungita |
| C1 | UDALTZAIN OFIZIALORDEA | | | | | 1 | | B2B2 | Iraungita |
| ESKALA: Administrazio berezia - AZPIESKALA: Zerbitzu Bereziak - KLASEA: Suteak itzaltzeko zerbitzua | | | | | | | | | |
| A2 | INSPEKTOREORDEA | 1 | | C1B1 | Iraungita | | | | |
| C2 | KOMUNIKAZIOETAKO OPERADOREA | 2 | | B2B2 | Iraungita | | | | |
| C2 | SUHILTZAILE-GIDARIA | 5 | | B1B1 | Iraungita | | | | |
| | GUZTIRA | 35 | 4 | | | 3 | | | |
| | | 39 | | | | 3 | | | |

Eskainitako plazak betetzeko prozedura eta baldintzak deialdietan zehaztuko dira


EK\CV GAO-I-2026-01552

OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO 2026 (1.ª FASE)

| Sub-grupo | Descripción plaza | Turno libre | | | | Promoción interna | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Acces. gral. | Reser. disc. | PL | Fecha preceptividad | Acces. gral. | Reser. disc. | PL * | Fecha preceptividad |
| ESCALA: Administración Especial - SUBESCALA: Técnica - CLASE: Técnicos/as Medios/as | | | | | | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (IGUALDAD) | 1 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (EDUCADOR SOCIAL) | 2 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (SALUD Y MEDIO AMBIENTE) | 1 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (PROMOCIÓN SOCIAL Y EDUCACIÓN) | 2 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (MOVILIDAD) | 1 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A MEDIO/A (MANTENIMIENTO Y SERVICIOS URBANOS) | | 1 | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | INGENIERO/A TÉCNICO/A DE OBRAS PÚBLICAS | 2 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | INGENIERO/A TÉCNICO/A INDUSTRIAL | 2 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| A2 | TÉCNICO/A DE PARQUES Y JARDINES | 1 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| ESCALA: Administración Especial - SUBESCALA: Servicios Especiales - CLASE: Cometidos especiales | | | | | | | | | |
| C2 | AGENTE DE MOVILIDAD | 8 | | B2B2 | Vencida | | | | |
| C2 | GUARDA (CENTRO DE ACOGIDA) | 2 | | B2B2 | Vencida | | | | |
| C2 | ENCARGADO/A DE EDIFICIO ESCOLAR | 3 | 2 | B2B2 | Vencida | | | | |
| E | PORTERO/A DE ESCUELAS | 2 | 1 | B2B2 | Vencida | | | | |
| ESCALA: Administración Especial - SUBESCALA: Servicios Especiales - CLASE: Policía Local | | | | | | | | | |
| C1 | OFICIAL/A (GUARDIA MUNICIPAL) | | | | | 2 | | C1C1 | Vencida |
| C1 | SUBOFICIAL/A (GUARDIA MUNICIPAL) | | | | | 1 | | B2B2 | Vencida |
| ESCALA: Administración Especial - SUBESCALA: Servicios Especiales - CLASE: Servicios de Extinción de Incendios | | | | | | | | | |
| A2 | SUBINSPECTOR/A | 1 | | C1C1 | Vencida | | | | |
| C2 | OPERADOR/A DE COMUNICACIONES | 2 | | B2B2 | Vencida | | | | |
| C2 | BOMBERO/A-CONDUCTOR/A | 5 | | B1B1 | Vencida | | | | |
| | TOTAL | 35 | 4 | | | 3 | | | |
| | | 39 | | | | 3 | | | |

Las correspondientes convocatorias concretarán el procedimiento y los requisitos de acceso a las plazas ofertadas


EK\CV GAO-I-2026-01552